ANGELUKO IKASLEAK
OSOGUNEKO ERAKASKERA
2000-2001 IKASURTEA

# HAMEKAGARREN ERAKASPENA

## (I) ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1- Zer da ahuntza zer egiten da haren esneaz?
2- Zer da ahuntzaren ordotsa?
3- Nola deitzen da ahuntzaren umea?

## (II)

## 5 ERREGINA HIRRIZ

Eta horra, azari oharturik eta hartaz gutiziaturik, heldu zaizkotela bide-bazterreko hiru ahuntz alimale. Aza-hostoa hunkitu orduko, hari lothuak gelditzen dire, eta zipoteka abiatzen gero... gelari, aphez, bildotx eta muthikoarekin.

Urrunago, nola bolanjer-okina jeikia baitzen orduko eta hantxet baitzagon athean, oihu egiten diote: «Zato, othoi, eta berex gaitzatzu!» Badoa okina, eta bera hantxet lotzen.

Harotz bat bere lantegian ari ikusten dute eta hel egiten diote karrasiaka: «Gizon hazkarra baitzare, zato gure berextera!» Lasterka badoa harotza, eta bera lotzen hura ere.

Urruntxago, beren erkatzak[1] eskuan, athe-aintzinean kalakan ari, baziren bi emazteki. Zapartakan heldu, kabaleria hura guzia ikusi duteneko, hirri eta hirri hasten dire bi atsoak. Gelariak oihu egiten diote: «Hirriz hola artzeko orde, hobeki **eginen ziniokete**, gure berextera heldu bazineztel» —«Berextera?... Huna, huna!» Eta, beren erkatzekin, jo eta jo hasten zaizko jende eta alimalezko soka luzeari... Ah! baia! Erkatzak lotzen dira hantxet, lehen ukaldian berean, eta heien jabeak gero erkatzeri.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31- Heldu zaizkotela 32 Zato, othoi.
33- Berex gaitzazu 34. eginen ziniokete
35- Heldu Bazineztе

**31. IZAN. Régime indirect Indicatif présent**

**Pluriel** — Hek dira = ils sont

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hek (eux) | zaizkit | (à moi) | = ils me sont |
| — " — | zaizkizu | (à vous) | = ils vous sont |
| — " — | zaizkio | (à lui) | = ils lui sont |
| — " — | zaizkigu | (à nous) | = ils nous sont |
| — " — | zaizkizue | (à vous) | = ils vous sont |
| — " — | zaizkie | (à eux) | = ils leur sont |

Zuek zaizte = vous êtes

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zuek (vous) | zitzaizkidate | (à moi) | = vous m'êtes |
| — " — | zitzaizkiote | (à lui) | = vous lui êtes |
| — " — | zitzaizkigute | (à nous) | = vous nous êtes |
| — " — | zitzaizkiete | (à eux) | = vous leur êtes |

Gu gira = nous sommes

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gu (nous) | gitzaizkizu | (à vous) | = nous vous sommes |
| — " — | gitzaizkio | (à lui) | = nous lui sommes |
| — " — | gitzaizkizue | (à vous) | = nous vous sommes |
| — " — | gitzaizkiee | (à eux) | = nous leur sommes |

**32 ETHORRI = Venir - Indicatif Présent**

Hura dator = il vient
Hek datoz = ils viennent

**Potentiel Présent** Hura datorke = il peut venir
Hek datozke = ils peuvent venir

**Impératif** Hi ator = viens
Zu zato = venez
Zuek zatozte = venez

## U K A N

**33 - Conjugaison transitive à cplt direct = pronom personnel**

**Indicatif - Présent - Complément Direct GU = Nous**

Zuk gaituzu = vous nous avez
Harek gaitu = il nous a
Zuek gaituzue = vous nous avez
Heiek gaituzte = ils nous ont

**Imparfait**

Zuk ginduzun = vous nous aviez
Harek ginduen = il nous avait
Zuek ginduzuen = vous nous aviez
Heiek ginduzten = ils nous avaient

**Impératif**

Zuk ukan gaitzazu = ayez-nous
Harek ukan gaitza = qu'il ait nous
Zuek ukan gaitzazue = ayez nous
Heiek ukan gaitzate = qu'ils aient nous